

XXV. UMEEN ANTZERKI ASTEA 2013



AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- GARAPENA**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- AURREKONTUA**

1. eranskina: Udal Eskola kontseiluaren batzarreko akta (2012ko urria)



1.- SARRERA

Urtero berriztatzen den egitasmoa eta konpromisoa dugu hau, aurrekontu bakoitzean izan ditugun premia eta diru-baliabideen arabera betetzen saiatuko garena, parte hartzen duten eragileen eskakizunari ere erantzunda.

Udal Eskoletako monitoreekin/irakasleekin elkarlanean, Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan ahozko adierazmena lantzea du helburu egitasmo honek. Gernika-Lumoko Udalak diru laguntza eta material baliabideak jartzen ditu horretarako.

2.- HELBURUAK ETA XEDE TALDEA

Helburu nagusia:

Eskola orduetatik kanpo edota eskola mundutik gizarteratzekoak diren ekintza horietan parte hartzen dutenen artean euskararen ahozko adierazmena lantzea eta esparru ez formaletan erabilpena normalizatzea, eskola-hizkuntza gizarte-hizkuntza bilaka dadin.

Helburu mailakatuak:

1).-"Inmertsio linguistikoa" deituriko prozesu horretan, hizkuntza "bizitzarako baliabide" dugula-eta, euskararen prestigioa landu ikasleekiko:

- ikasteko
- jolasteko
- lagun berriak egin eta komunikatzeko (ikasle etorkinena batik bat kontuan hartuta).
- Jai giroarekin lotzeko.

2).- Ekintzak antolatzerakoan gurasoen partaidetza landuko da. Hizkuntza transmisioan familia oinarritzkoa izanik, guraso eta seme-



alaben arteko harremanetan euskararen erabilpena ere girotu nahi izango da, etxeko mugetatik aterata gizartean kokatuz.

3).- Hezkuntza arloari zehazki dagokionean, badira bide batez landuko diren atalak:

- Eskola mundua eta gizartea harremanetan jartzea.
- Ikasleak gizarteratzeko bideak jorratzea.
- Euskal ohiturak hedatzea.
- Ikasleen psikomotrizitatea lantzea.

EBPN-ren helburuekin bat:

EBPN-ren helburuekin bat:

- **Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

3. Irakaskuntza

3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

3.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

(*) 3.2.2.8. Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko laguntzak eskaini eta koordinatu

(*) 3.2.2.10. Ahozko adierazmena indartzearen antzerkingintza sustatu Eskola munduan (jardunaldiak, diru laguntzak,...)

(*) 3.3. Eskolaz kanpoko erabilera-esparruen eta herria-auzoa-lagunartea-aisiaren arteko zubiak eraiki

3.3.1. KOMUNIKAZIOA

(*) 3.3.1.1. Euskara Batzordean ikastetxeen partaidetza ziurtatu

(*) 3.3.1.3. Udal Eskola Kontseilua bilgune, ikasturteko eskolaz kanpoko egitarau

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatuko ditu eta gainerako ekintzak antolatu (inprentakoak, ekitaldietarako baliabideak, e.a.).
- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egiten dituen bilkuretan, bestea beste, ikasturtean burutuko diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia zehazten da. Ekintza horien artean Umeen Antzerki jardunaldiena (datak, baldintzak, partehartzaileak, ikusleak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 7 zentro (iazkoaren aldean zentro bat gehiago, Barrutialde Institutua).

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak/monitoreak (7): zentro bakoitzak egitasmo hau garatzeko arduradun bat jarriko du.
- Diruzkoak, aretoa e.a.: antolaketaarako beharko den azpiegitura Gernika-Lumoko Udalak jarriko du.




4.- GARAPENA

Umeen antzerki asteak lau eguneko iraupena izan du: maiatzaren 7tik 10era.

Jardunaldiak Gernika-Lumoko Elai-Alai aretoan izan dira. Zentro bakoitzeko talde bat partaide, 6 talde guztira (LH eta DBH-koak).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

XXV. UMEEN ANTZERKI ASTEA – 2013

EGUNAK	ORDUAK	ANTZEZTALDEA	IKUSLEAK	ANTZEZLANA
Maiatzak 7	11:00	Barrutia ikastetxea	50 ikasle zentro bakoitzeko, LHko 5. eta 6. mailakoentzat eskainia.	Otsailerako finkatzekoa
	15,00	Allende Salazar ikastetxea	50 ikasle zentro bakoitzeko, antzeztaldekoen maila berekoak edo beheragoak	“ “
Maiatzak 8	11,00	Seber Altube Ikastola	“ “ “	“ “
	15,00	Mertzede ikastetxea	“ “ “	“ “
Maiatzak 9	11,00	Gernika Institutuko antzerki taldea	“ “ “	“ “
	15,00	San Fidel Ikastola	“ “ “	“ “
Maiatzak 10	11,00	Barrutialde Institutua	“ “ “	“ “

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldeak:

- LHko ikasleak: guztira 1.100.
- DBHko ikasleak: guztira 800.
- Zeharka lantzen direnak: antzezleen familiak.

Adierazleak:

- Antzezle modura parte hartu dutenak landutako unibertsoarekiko.
- Jardunaldietan ikusle gisa egon direnak.
- Ekitaldi guztiak eskainiko dira udalerriko Oiz-Mendi telebistatik. Aldez aurretik ohartaraziz, etxean grabatu nahi izaten duenak aukera izango du. Ondorioz, gurasoekiko eta familiekiko zeharkako eragina nolabait lantzen dugulakoan gaude, nahiz eta honi lotutako adierazleak eskuratzea oso zaila izanik. Estimaziorik baikorrenak esango liguke antzezleen etxeetan grabatuko direla ekitaldiak eta zeharkako eragina jasoko dutela guraso eta famili hurkoak. Ikusle potentzialak Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeetan, 11.000 inguru (gehi eskualde horietatik kanpo Oiz-mendik dituen ikusleak, beste 9.000 ingurua – egindako azken neurketen arabera-).

6.- AURREKONTUA

Gastuak

Graficas Amorebieta, 2000 lau orriko(koloreetan)	1.100
ZUZENEAN- Zerbitzu Teknikoa	2.400
Diru laguntzak zentroei	2.500
Guztira gastuak	6.000

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean.

Esperanza Uriarte Erdaide
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Euskara Teknikaria

1. eranskina

UDAL ESKOLA KONTSEILUAK 2012KO URRIAREN 16an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreko aztergaiak ekintzaka eta ordu desberdinetan aztertu dira.

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (HNT1)

.../...

4).- 11:30ean, XXV. ANTZERKI JARDUNALDIAK

Batzarreratuak:

Iñaki Gorroño (Hezkuntza Zinegotzia)

Berritzegunea

Seber Altube ikastola

Allende Salazar ikastetxea

Barrutia Ikastetxea

Mertzede ikastetxea

Gernika Institutua

San Fidel ikastola

Hartu diren erabakiak:

1. Egunak: maiatzak 7, 8, 9, 10.
3. Ingelesezkko ekitaldiak maiatzaren 30ean, astelehena (LHkoentzat bi ekitaldi eta DBHkoentzat beste bi). ETC enpresarekin jarraituko da, ahal bada.
- 4.- Sariak.- Taldeei diploma bat ematea, oroigarri gisa, eta antzerki saio baterako sarrera bana antzezleei.
- 5.- Entseguetarako egunak eta orduak banatu.

EGUNAK	Goizez 9:30-12:30	Arrats. 14:30-16:30
Apirilak 29	Gernika institutua	Barrutia ikastetxea
Apirilak 30	Seber Altube ikastola	Allende Salazar ikastetxea



Maiatzak 2	San Fidel ikastola	Mertzede ikastetxea
Maiatzak 3	Barrutialde institutua	-----

6.- Otsailaren lehenengo asterako antzerki-lanaren fitxa aurkeztea:

- Antzezlanaren titulua.
- Zuzendaria.
- Sinopsia
- Antzezleak eta pertsonaiak.

.../...